

Euskal ipuingintzari begirada emango diote Harkaitz Canok eta Iban Zalduak

Bi idazleen eta jendearen arteko mahai-ingurua izango da gaur

Erredakzioa

Neguaeren etorkizunak, euskal ipuingintzari begirada izeneko mahai-ingurua izango da gaur arratsaldean Liburutegi Nagusiko Ekitaldi aretoan (San Jeronimo kalean), DK Literatura ekitaldien baitako programazioan. Harkaitz Cano eta Iban Zaldua idazle donostiarrek izango dira hizlariak eta Uxue Apaolaza idazleak egingo ditu galdetzaile eta gidari lanak. Mahai-ingurua 19:30ean hasiko da.

Euskal ipuingintzaren egungo panoramaz hitz egingo dute Canok eta Zalduak, baita haiei interesatzen zaien ipuingintza motaz eta liburu korronteez ere.

Bestalde, hainbat galderari erantzungo diote bi idazle donostiarrek: ipuinak zer duen nobelatik eta zer poesiatik aztertuko dute, euskal ipuin bildumen ugaritasuna nondik datorren eta modernotasun zeinua ote den, ipuingintzak garrantzia handiegia ote duen euskarazko narraziogintzan... Galdera horien eta moderatzaileak egiten dituen besteen inguruko iritzia emango dute bi idazleek.

Honekin batera, bi idazleek ipuin labur bana irakurriko dute ekitaldian zehar. Ekitaldiaren bukaeran, solasaldirako aukera izango da bertan bildutakoen artean eta norberak dituen iritziak eta zalantzak mahai gainean jartzeko aukera izango du